



EMAKUME ABERTZALEAK NAFARROAN ETA IDEOLOGIAREN TRANSMISIOA: HURBILPEN HISTORIKOA

Uribe-Etxebarria, A.; Larrazabal, L.; Fernandez, I.; Zabaleta, I.; Martinez, B.; Erriondo, L.; Basurko, F.

Politikaren mundutik at edota alboraturik dauden taldeak ordezkatzeko moduei buruzko arazoa da mende honetako 70 eta 80 urteetako problematika feministaren gunea bera. Politikoaren gaineko hausnartze horrek ordura arte bestela baitakoan pasa edota aintzat hartu gabeko elkarte praktikak azaleratzeko joera du. Horretara, erakunde politiko eta erlijiosoen laguntzarekin, emakumeek sortutako nahizko elkarteek agerian uzten digute emakume esparru pribatutik gizarte eta politikaren esparruetara zabaltzeko zegoen gogo tinkoa¹. Gure testuinguruari dagokionez, XX. gizaldiko lehenengo hamarkadetan kokatzen den bide honen hasiera eusko jeltzaleen eremuan gorpuztu zen, nola-eta EAB (Emakume Abertzale Batza) sortuaz, bai eta zenbait emakumeren jarduera propio politikoaz ere.

Lan hau ikerketa zabalago baten ataletarik bat da. Beronen muina zera da: emakume nazionalistek Francoren garaian familia eta erkidegoaren esparruetan jokatutako papera funtsezkoa izan zela esparru publikoan ukatuta eta zapalduta zeuden kode ideologiko eta kulturalen mantenerako.

Komunikazio honek Nafarroako zenbait emakume nazionalistek euren esperientziaz kontatzen dituzten jarduera eta ikuspegiei buruzko arazo nabarmenak aurreratu nahi ditu. Elkarrizketa sakonak, zehatzago esanda, amaiera irekia duten elkarrizketa sasiegituratuak erabili dira, eta horrek bide eman digu arazo horien jarraipena egiteko II. Errepublikaren garaian eta Francoren garaiko lehenengo hamarkadetan.

1.- EMAKUMEA ETA ABERTZALETASUNA NAFARROAN

Euskal nazionalismoren sorrera Nafarroan gatazka eta korapilatsua dugu. Erresuma eta beronen erakunde deuseztatzearekin (1841.ko Lege Pasionatua), Nafarroako Euskara Elkartearen inguruan bildutako intelektual multzo batek Iruñea inguruan irtenbide federal bateratsurako giroa bizten lagundu zuen. EAJren eta arantzarren irakasbideak, «Euzkadi, euzkotarren Aberria» leman oinarriturik, onspen eskasa izan zuen garai honetako nafar egoera gordinean.

Euskal nazionalismoaren lehen bultzada Nafarroan 1918-1919. urteetan eman zen, nahiz eta II. Errepublikara arte egiazko aitzinamenduaz ezin mintzatu. Garai honetan organu ezberdinen sorrera ematen da, guretzat bereziki aipagarria delarik EABren agerpena (Emakume Abertzale Batza) 1931an². Dena den aurreko garaietan ere zenbait emakume jeltzaleren eskuhartze publikoa kontutan izan beharrekoa da.

Primo de Riveraren garaian Nafarroako emakume jeltzaleen artean bereziki bi aipatu beharrekoak dira, biak irakasleak, ekintza eta kargu publikoetan agertzen baitziren. Julia Fernandez Zabaleta Euskal Esnaleak antolaturiko hitzaldi batean (Donostia, 1.924an) garaiko feministen zenbait eskariren alde agertu zen onargarriak zirelakoan, emakumeek aunitz alorretan aritzeko bazutela gaitasunik aldarrikatuaz, hala nola lan intelektualean eta politika alorrean esku hartzeko aukera defendatuz. Alabaina, beraren proposamena *era que se preocupasen de su educación y realización personal, pero encaminando sus esfuerzos, ante todo, a prepararse para contribuir a la conservación de la lengua, los fueros, las costumbres, el arte y especialmente, la familia*³. Era honetan kulturgintzan, soldatapeko lan eta politikagintzan esku hartzearen alde agertu arren, familiarekiko betebeharra emakumearen zeregin nagusitzat jotzen zuen eta, hau dela eta, Etxe-Ikastolak sortzea proposatu zuen irtenbide gisa⁴. Iruñeko Etxe-Ikastola Irakasle Eskola Normaleko aintzinako ikasle elkar-teak sortu zuen, bertoko arduradun Katalina Alastuey izan zelarik. Berau izan genuen Iruñeko EABko zutabeetako bat, horretaz aparte 1926an Nafarroako Administrari Kontseiluan Elkarte Kultural eta Lanbide Intelektualen ataletik ordezeko bozeramailea izendatua izan zelarik.

Bestalde 1930.ko Uztailean Euskaltzaleak «Euskal Emakumearen Omenaldia Euskarari» izenburupean Donostian omenaldi bat antolatu zuen eta gerora beste antzerako bat Bergaran. Ekintza hartan non hizkuntzaren berrindartzean ikusleek zuten ardura azpimarra-

tzen baitzen, emakume talde batek Hegoaldea eta Iparraldea ordezkatzuz esku hartu zuen. J. Kuntxillosen hitzetan Salazar bailaratik Aranzadi bat, lesakar bat Baztanetik eta bera, Erronkaritik, izan ziren Foru Aldundiak izendaturiko nafar ordezkariak. Emakume hauen zeregina testu labur bat errezitatzea zen ekintza historikoak aipatuz eta euskal emakumearen portaera bailara bakoitzeko euskalkian. *Más folklórico que otra cosa, pero tenía su fuerza geure elkarriketatuaren aburuz.*

Bigarren Errepublika ezartzea abertzaleendako *una conmoción que aceptaron encantados*, izan zen eta helburu jeltzaleak aintzintzeko itxaropen haundia ekarri zuen, ondorengo zentzuan *Navarra se incorpora a toda la cosa vasca ... que se sintiera vasca*. Alabaina *ya desde que se implantó la república, sistemáticamente, las derechas fueron detractoras*⁵.

Baina J. Kuntxillosen testigantzak argi adierazten duenez, Nafarroan abertzaletasunaren garapena oztopatzerakoan bilbotar jeltzaleek nafar nortasunari zegokionean erakutsi zuten ulermen ezak ere eragin zuen: *... en Navarra no era una tontería ser nacionalista ... los bilbainos, dentro de PNV los bilbainos, los que tenían el dinero... nos miraban con una cara como diciendo vosotros no sabéis hacer patria ... pretendían enseñarnos a nosotros cómo había que hacer para que la gente entrara en el PNV, digo el PNV porque era el único partido (nacionalista), y sobre todo se sintieran vascos ... y nos querían dar lecciones pero las lecciones eran nefastas. Nosotros sabíamos que aquel procedimiento en Navarra no cuajaba sino lo que hacía era daño, y grande*.⁶

M. Angeles Azketak, ildo beretik, honela dio *el nacionalismo tenía que haber partido de Navarra y luego haber ido ampliándose a las demás regiones del país. Porque resultó, pues claro, al ser el nacionalismo vizcaino .. pues aquí estaba como un poco ... que nos querían acaparar ... y se llamaban los bizkaitarras ..como una cosa peyorativa*.⁷

Bizkaitarren kasuan EAJk ezarritako kontserbadurismoaren aurrean, Nafarroan *el carlismo había predominado siempre ... aquí ser carlista era una cosa normal ... aquella cosa, aquel carlismo, aquella cosa tan vetusta y aquella cerrazón de ideas* nagusi izanik, abertzaletasuna «*ohizkoaren aurka*» joatea eragin zuen eta Iruñeko hiritar multzo batek EAJrendako zuen begikotasuna eta garra azpimarratzen du. Elizak, karlismoaren lagunmina, kontserbadurismo bortitzenean irauten zuela jakin erazteko, M. A. Azketak Nafarroako Acción Católicako xehetasun esanguratsuen berri ematen digu :

la Acción Católica dejaba llevar manga hasta el codo, pues, en esta diócesis hasta el puño, o sea, que era una sociedad muy cerrada y, claro, el nacionalismo, pues iba mucha gente joven y era una gente más abierta, hacíamos muchas excursiones y, en fin, era cambiar un poco, salirnos de aquel ambiente tan cerrado y tan oscuro.⁸

Eite hau J. Kuntxillosek ere baieztatzen du: *el PNV aquí era mucho más liberal que en Bilbao*. M. Dolores Hermoso Mendozarendako Lizarrako giroa bezelatsu *muy de derechas ... los del PNV en aquella época era más avanzaos, muy abiertos, era como la izquierda de aquella época*.⁹

Dena den Nafarroan antzematen da Acción Nacionalista Vascaren jarduera, EAJrengandik bereizturiko taldea, honekiko ezberdintasuna beraren izaera akonfesional eta arazo sozialengatik zuen ardura nabarmenean zetzalarik. J. Kuntxillosen kasuan agerian uzten

denez Nafarroan Acción Nacionalista Vascako pertsonak EAJrekin batera lan egiten zuten zeren:

... en aquel momento, si te sentías abertzale, ¿qué eras? ... pues tenías que ser de Sabino Arana que, al fin y al cabo, tuvo su mérito ¡no vas a decir que no! Después lo que ha sido el gran error es seguir con la mismísimas teorías de Sabino Arana que pasó a ser un retrógrado ... Pero en cada sitio había que darle el matiz que se necesitaba y eso aquí no cuajaba, y luego cuando venían pues metían la pata porque no sabían dónde se movían en ningún aspecto (lehenxeago gogorki arbuiatzen zuen bilbotar jeltzaleen gidaritzari aipamena eginez).¹⁰

Iruñeko Batzokia edo Euzko Etxea, zenbait ekintza antolatzen ziren alderdiaren egoitza izateaz gain, abertzaleen biltokia, bai hiriburukoena eta baita bertara zetozen herritarrena ere bazen. Iruñeko batzokia *era popular al máximo, tenía un matiz completamente distinto. Estando en el batzoki te sentías recómoda en el aspecto de que ya la política, lo más complicado, ya venía aparte ... pero estar en el batzoki en conversación con unos y con otros ... eran todos iguales. La gente convivía y convivía de una manera ... sintiéndose contentos del ambiente en que se encontraban.*¹¹

M. A. Azketaren iritiz alderdian *se pasaba muy bien ... había chicos y chicas y lo pasábamos bien. Casi todos los domingos íbamos a algún sitio ... que se inauguraba el batzoki de Leiza, pues a Leiza ... era un partido alegre. Yo tengo ese buen recuerdo de mi juventud, del partido. Ya te digo íbamos todos los días porque siempre había una cosa u otra ... y luego, claro, los mayores se encargarían de hacer política pero como entonces era joven, yo no llegaba a eso.*¹²

Testuinguru honetan azpimarragarria dugu elkarrizketatuentzat abertzaletasuna, ideologia politikoa izateaz gain, sentimendua ere badela osagarri familiarrei zuzendua eta beraiekin konpartitua. Horregatio, mende hasierako lehenengo hiru hamarkadetan Irakasle Eskola Normala eta Iruñeko Seminario Conciliarra euskal ideia abertzaleen topagune gisa ageri dira.¹³

2.- NAFARROAKO EAB II. ERREPUBLIKAN

EABren lehen elkarteak Bilbon sortu zen 1922an, Elias Gallastegik sorturiko irlandar emakume nazionalista elkartearen ereduaren arabera (Cumann na mBan), errepublika garaian beste euskal lurraldeetara hedatu zelarik. Honen garapena Nafarroan «Suscripción pro Nabarra y Araba»rekin loturik doa, 1932.ko Uztailean EAJk irekia lurralde hauetan beraren propaganda areagotu asmoz. Kanpaina honek aurrerakuntza nabarmena eragin zuen eta, M. Ugaldere datuen arabera, 30 udalbatzen sorkuntzaren emaitza izan zuen elkarteren baten antolagune gisa. 30 udalerrri hauetatik 20k 1934a baino lehenago eratu zituzten EAB elkarteak, gerora 2 gehiago sortu zirelarik.

2.1. EABren AGERRALDIA

Nafarroako lehen elkarteak Iruñekoa izan zen (1931.ko Azaroak 5ean sortua). Bilbotik igorritako Araudian oinarriturik eratu bazen ere, Iruñean hainbat aldaketa interesgarri gaine-

ratu zitzaizkion. Bilbon, EAB Euzko Gaztediren filial gisa sortu zen (EAJren aberriar taldeari lotua), Iruñeko EAB, ordea, zuzenki EAJren filiala zen eta, teoriar gutxienez, alderdiko bileretan esku hartzea onartu zitzaizen nafar kideei.

Era berean, J. Fernandez Zabaleta ta Josefina Irujok¹⁴ 1932.ko Abenduan eta 1933.ko Urtarrilean EAJk Tolosan ospaturiko Asanbladan izaniko jokabidea azpimarragarria da. Bertan, nafar burukideek emakumeek EAJren kide izateko zuten eskubidea aldarrikatu zuten, alderdian hauen partaidetza ahalbideratuz eta gizon eta emakumeen arteko eskubi-deen berdintasun erreglamentaria gauzatuz. Lorpen hau 1933.ko Martxoaren 5ean onartu-tako Nafarroako Lurralde Erakundean zehaztu zen.

Araudi honek bidezko egin zuen J. Fernandez Iruñeko Herri Asanbladak ahaldu izenda-tzea, Nafarroako EAJren Organu Legislatibo Gorenean ahotsa eta bozkatzeko eskubidea bereganatzen zuelarik. EAJn emakumeen partaidetza politikoa pixka bat gehixego ireki zen, 1935.ko Asanbladan ahaldu ez izan arren partehartzaileek ahotsa izatearen eskubidea onartu zenean, zuzenean ikutzen zituen arazoetan edo eskari baten bidez.

EABren hedakuntzari Nafarroan begiratuaz, Iruñeko elkartearen ondoren merindade barnean beste hainbat sortu ziren: Billaban, Etxaurin, Obanosen, Irurtzunen, Elizondon, Iturenen, Goizuetan, Leitzan, Betelun, Larraunen, Etxarri-Aranatzen, Arbizun, Uharte-Arakilen eta gainerako merindadeetan, Zangotzan, Agoitzen, Burgeten, Tafallan, Martzilan, Lizarran, Aiegin eta Sesman. Eraginkorrenak Iruñekoa, Lizarrakoa (Josefina Irujo ta M^a Puy Ruiz Aldak bultzaturik) eta Leitzakoa izan zirelarik.

J. Fernández eta K. Alastuey izan ziren hiriburuko elkartearen bultzatzaileak. Bertan 1931.eko Zuzendaritza Batzordeko Lehendakarisia eta Lehendakarisorde postuak bete zituzten, 1933.enekoan Idazkari eta Diruzainenak bete zituztelarik. 1933.eko horretan Lehendakarisia eta Lehendakarisordeko Maria Salvatierra Iriarte (Balco-ren alarguna) eta Teresa Blanco Garmendia izan ziren eta 1935an Felisa Ezkurdia eta Silvia Herrera Sanz.¹⁵

2.2.- ESANGURA TA EKINTZAK

Euzkotar emakume militanteak biltzen zituen EAB elkartearen Sabino Aranarengandik zetorkion ideologian oinarritutako emakumearen ikuskera jakin baten inguruan dabilkigu. Honen arabera, emakumea, emazte eta ama, alde bikoitzetik dago birsortze betekizunera zuzendua. Alde batetik, birsortze biologikoaren eragilea den neurrian, enda edo arrazaren iraupenaren erantzule dugu, gizatalde bezala desegina eta irentsia izatearen mehatxuaren aurrean. Bestalde, maila ideologikoan bere betekizun biologikotik esparru sozio-kultural-tara lekualdatzea ematen den neurrian, emakumeari abertzaletasunaren ezaugarri den kultural, ideologiko eta hizkuntz ondarearen gordairu eta birsortzaile zeregina ezartzen zaio. Euskal ama eta emaztea sozializazio garaian dauden ondorengo belaunaldientzako ezaugarri nazionalaren sortzaile eta birsortzaile bilakatuko da, ondorioz esparru familiar eta sozialean euzkotar mogimenduekin batera lan egiteko deituak izan zirelarik.¹⁶

Zentzu honetan, K. Alastueyk Martzilan ospaturiko mitin batean, emakume abertzalearen zereginak aipatzean, emakumearen esku hartzea eskatzen zuen, ondoko hau argudiatuz: *el Nacionalismo es acción y es sentimiento, es ternura y voluntad, cariño hacia lo pasado y*

*previsión en lo futuro, es ante todo formación de la raza consciente de sí misma.*¹⁷ Emakumearen ideala, bada, «Aberriaren erredenzioa» zen J. Fernandezek 1934an zioenez.

Ideal hau lortzearren, eta P. Larrañagaren datuen arabera, Iruñean 700 elkarkide ziren eta Nafarroan 2.000 guztira. M. Angeles Azketak uste du Iruñean 500en bat zirela. Militantzia eta jarduera politiko hau II. Errepublikan alderdi politikoek argi eta garbi bultzaturikoa dugu eta egoera hartan sozialki onestua zen, besteak beste margariten lanagatik: *en Pamplona estaban «las margaritas» que eran las de los carlistas y aquéllas eran muy organizadas sí, ... acudían a los mítines.*¹⁸

BIPIMI-k sinaturiko artikuluko batean emakume baztandarren ekintzek isuri bikoitza behar zutela zioen: bata barnealdekoa «verdadero concepto de democracia vasca»-ri buruz kontzientzia hartzeari zegokiona, bestea, kanpokaldekoa, jarraitzaileak erakartzeari zuzendua, beraz, «ez zituzten beraien ahizpa baztandarrak etsaitzat jo behar»¹⁹. Gai honetaz hemen zera esatea esanguratsua da: Bizkaian «margarita» eta «emakume»-en artean, jarraitzaileak erakartzeko norgehiagokak sorturiko borroka zegoen bitartean Nafarroan zegoen giroa askoz ere zabalagoa izan zela.

EABren ekintzei dagokienean, ongizatea, kultura eta propaganda eremuetara hedatu zirela azpimarratu behar dugu.

Propaganda mailan, zenbait emakumek esku hartu zuten hitzaldietan, batzoki berrien aurkezpenetan eta EAJ bultzatuz hainbat hauteskunde mitinetan. Gizonezkoak baino gutxiago izan baziren ere Nafarroan benetan kontutan hartua izateko hizlari kopurua agertzen da: K. Alastuey, J. Fernandez, J. Irujo, M. D. Hermoso Mendoza, M^a Puy Ugarte (azkenengo hirurak lizarratarrak), Iruñeako Miren, Elizondoko Miren, Izaskuneko Miren, Pia Goenaga, Beatriz Urmeneta, M^a A. Azketa, Bittori Etxeberria.²⁰

Ekinbide honetarako ausardiaz gain nolabaiteko prestakuntza intelektuala ere beharrezkoa zen. Garai hartako emakumeak kultura sarreran zituzten zailtasunen ondorioek beste pertsona batzuen laguntzaz gainditu zituzten. M. Dolores Hermoso Mendozak dioskunez, bere neba zen prestatzen zizkiona *unas softlanas preciosas*. Ildo honetatik, EABk bere kideentzako hitzaldi sortak eta prestakuntza ikastaroak eratu zituen (euskara, historia, folklorea, edota sukaldaritza), hauek beharrezkoak baitziren euskal belaunaldi gazteen sozializazioaren zeregina bete ahal izateko.

Erakarpen lana Nafarroako herrietatik ibiliaz ere egiten zen, honen helburua elkarren berri izan eta loturak sortzea zelarik. Ekintza hauek talde txikitik burutzen ziren eta beti emakumez eta gizonez osatutako taldeetan. J. Kuntxillosek, zeinak Acción Nacionalista Vascarekin lankidetzak sakonagoa izan baitzuen, honela diosku *la gente te escuchaba con interés porque éramos navarros, porque si no hubiéramos sido navarros nos hubieran tomado con pinzas.*²¹

Hauteskunde garaietan areagotu egiten zen emakumeei egiten zitzaien eskaria politika jeltzalea indar zezaten. Emakumeak bozkatu ahal izateak, 1931.ko Abenduan onartua, emakumeen multzoa alderdi politiko guztiendako interesgune bilakatzea eragin zuen. Nafar testuinguruan jeltzaleak erregetiar indarren inguruan bilduriko kontrario indartsuarekin neurtzen ziren. Egoera honetan, La Voz de Navarrak 1932.ko Azaroan argitaraturiko artikuluko

batean euskal abertzaletasunaren katolikotasuna baieztu eta zentralismoari uko egiten zion ondorengo goiburuarekin: *¡Católica, sí, al servicio de España para aplastar a Navarra, no!* Emakumeei bai katoliko eta baita nafartar bezala zuzenduaz, EAJrendako eskatzen zuten bozkatzea bere ideariuma honela laburbilduz: *quieren los que la integran, la religión de Cristo en nuestras escuelas, la unidad de la familia en nuestros hogares, el bienestar del obrero dentro de las encíclicas de los SS. Papas, el progreso moral y material de este pueblo vasco sólo por sí y para sí.*²²

Laguntza ematearen ekintzarik garrantzitsuena «Roperero Vasco»aren inguruan biltzen zen non otarreak osatzen ziren (hauek jaioberriendako jantziez gain, domina bat zuten bere katetxo eta guzti eta puerikultura liburuxkatxoak J. Fernandezek idatzia) ELA/STV sindikatuko langileen semeendako. Honen banaketa kideentzako soilik ospatzen zen Errege eguneko izaera folkloriko jai batetan egiten zen. Otartxo banaketaren ekitaldi barnean atal bat «nafar emakumearen gorazarreak» osatzen zuen, non Erronkari, Salazar, Baztan eta Erriberako jantziekin apaindurik antzezlan nimiñoak ematen baitzituzten, bukaera euzkotarren ereserkiaren abestiarekin ematen ziotelarik²³. Era honetako ongintzazko ekintzak ezin egokiagotzat jotzen ziren emakumeendako, aintzinako pentsaerari segituaz, horrela uste dute bai M. A. Azketak eta baita J. Kuntxillos-ek. Azkenengo honi sekulan ez zitzaion erakargarri izan hauetako partaide izatea.

*Yo las veía a las mujeres, no me apetecía nada ir allí porque era una cosa insulsa ... era una labor tan poco efectiva ... era una ayuda ... pues, a la medida de lo que eran ellas, con la cultura que tenían y con el puesto que tenían en la sociedad que era más de estar en casa que otra cosa y eso, en nuestra casa ha sido distinto porque mi padre no tenía esa mentalidad.*²⁴

Argi utzi beharra dago ekintza hauek «margaritak»²⁵ ere burutzen zituztela eta hauek Nafarroan emakumeak baino indartsuagoak zirela. Lizarran adibidez ekintza hauetaz arduratzen zirenak emakume karlistak ziren, guztiz urriak izanik emakumeen artean «Roperero»aren ekintzan jardun zutenak.

Batzoki barnean ere izaera kulturala zuten hainbat ekintza burutzen ziren: dantza-taldea, gizon-emakumez osatutako abesbatza, antzerkia²⁶. Ekintza hauetan EABkren kideek taldeetako partaide izaten hartzen zuten parte, jantziak prestatuaz eta gaztetxuko neska-mutilei erakutsiaz. Euzko Gaztetxu-Batza, izenak dioen legez gaztaroari zegoen zuzenduta, besteak beste: *a niños y niñas que quieren educarse en culto a nuestras grandes tradiciones y a nuestro espíritu nacional*²⁷ eta bere ekintzak 1.933 aldera jarri ziren martxan. Emakumeek poxpolina taldeei dantzan erakusten zieten, jaiak antolatzen zituzten (... *todos los años se rifaba una bicicleta ... iban hasta gitanicos de la calle de La Merced*²⁸), hurrekin batera katedralean izaten ziren Santa Maria la Realen omenezko eliz ospakizunetara joaten ziren eta emakume «berezitasun eta bitxikeriak» agertuz laguntzen zuten.

Nazionalismoaren ardatzetariko bat euskara lantzea izan genuen. Jakin zekiten emakumeek erabili egin behar zuten eta beren seme-alabei erakutsi, eta ez zekitenek ikasten ahalegindu. Heziketa formalaren testuinguruan, emakumearen partaidetza nabarmena da Euskal Eskolei dagokienean²⁹. Hauek orokorrean Euzko Ikastola Batzak, Emakume Abertzale Batzak eta Euzko Gaztediak bultzatu zituzten. Iruñearen kasuan Euskal Eskolari

1.931-32. ikasturtean eman zitzaion hasiera Patronatu baten gidaritzapean eta Euskararen Adiskideak eta beste zenbait erakunde euskaltzale eta partikularren diru laguntzaz. Lehenengo Irakaskuntzako lehendabizikotik hirugarren ikasturterainoko 20 neska-mutilekin hasi zen, Tolosako Maite Miren Saizar emakumearen ardurapean. 1.933an Nafarroan zehar hedatzea deliberatu zen eta 1933-34an Lizarran sortu zen, Leitzako Petra Azpiroz emakumearen ardurapean³⁰.

Horrela bada, emakume abertzaleek EABn izandako partaidetzaren bidez zenbait esparru sozialetan sarrera lortu bazuten ere, orokorrean ukaezinezkoa da beraien ekintzak nazionalismoaren berezko balioen birsortzaile eta gordairu izatearen zeregin nagusia zuen emakume izaeran barneratuak izan zirenik.

3.- EUSKAL EMAKUMEAK FRANKISMO GARAIAN

1936.ko Uztailaren 18-19ko militar altxamenduak iharduera hauen desagerpena ekarri zuen Nafarroan. Altxamenduaren ia egun berean izan ziren itxiak euskal bilguneak, tokiak eta prentsa (*La Voz de Navarra*) bahitua. Ekintzaile abertzaleen egoera are okerragoa bilakatu zen, hala nola ezkertiar eta errepublikarrena ere, herrialde honek nagusiki altxamenduaren alde jokatu. Dena dela zenbait emakume, legaltasunetik at, zenbait laguntza eta sorospen ekintzetan bitarteko izan ziren, euzkotar errepresaliatuendako laguntza sareak eratuz³¹.

Entrebistatuek «transizioko» izendatzen duten lehendabiziko garaiaren ondoren, zeinatan beldurra eta izugarritzko mesfidantza ziren nagusi, salaketa ugari ematen baitzen, emakumeek eta abertzaleek orokorrean antolatu beharra somatu zuten *organizar algo, no nos hemos de quedar así*. Iruñeko emakumeak kuota ordainduz jarraitu zuten *a un matrimonio, los Ezkurdia, mayores y sin hijos, que, clandestínamente tenían relación con el partido*. Bikote honetako emaztea Felisa R. Ezkurdia zelakoan gaude, Iruñeko EABren burua 1935an. Senarrak, Periko Ezkudia, San Kristobaleko Fuertean espetxeratutako presoendako laguntza antolatu zuen: *entonces ya íbamos a su casa, allí nos decían a qué preso habíamos de visitar. Entonces ya fue una cosa organizada... hubo varios grupos de emakumes que subíamos todas las semanas dos veces*. Beraien zeregina arropa zikina biltzea zen, zeren ur gutxi izaten baitzuten: *les daban un litro de agua por día para beber y asearse*, eta garbi itzuli eta desinfektatu edo berregin. Era berean «Eguberri paketeak» ere prestatzen zizkieten: *estaba el pan racionado, o sea, que a la gente nos daban unos bollos, que tendrían 15 cm., de pan negro... pues para los presos teníamos una panadero que nos daba panes grandes*.³²

Laguntza hauek aurrera eramateko 8 edo 10 nesketako taldeetan igotzen ziren, espetxeratu euzkotarrei ziren zuzenduak nahiz eta gainontzekoekin ere ahal zena egiten zuten. M. A. Azketak oso positibotzat jotzen du lan hau: *La mejor labor de Emakume que se hizo*.³³

Gerra egoera guztietan bezala, gizonezkoak frontera doaz edo eramanak dira, beste zenbaitzu erbestera doaz eta abar, baina bitartean emakumezkoak eta haurrak, ordea, egoera zailetan geratzen dira edo baita erbestera joan beharrean. Hasierako urteetan eta 1936tik aurrera batipat abertzaleek gehienbat Iparraldera jo zuten eta han EABren emakumeak³⁴,

bizkaitar eta gipuzkoarrak nagusiki, elkarren artean bilduz zenbait zeregin burutzen jarraitu zuten : Venezuela, Argentina, Mexikora idatziz diru laguntza eske, erbesteratutako familiak sorostuz, haurreei dotrina erakutsiaz, beraien lanaz alde egindako haurren koloniak bultzatuz eta abar. Teresa Epalzak gogoan du Iparraldean bazeudela nafartar erbesteratuak, euretariko bat Joaquín Ramírez «piezitos»: «aurika zan San Kristobalen bait zen eta egun baten alde egin zuen ... han agertu zan, hori zan majoa beti, bera sozialista zan, harrek zen naparrua, harek zekin, baina ... geuria egin zan ya, geuria». ³⁵

Iruñean, abertzaleek familiak sorosteko erakunde txiki bat antolatu zuten ondoko zereginetarako *saber en qué andaban, qué necesitaban ... y unas nos ocupábamos de dos familias, otras de otras dos ... porque como no lo podíamos hacer a la luz pública, ni podías llamar por teléfono porque te daba miedo que te estuvieran oyendo y te vigilaban todo ... pues que no creyeran que nos reuníamos, como era, ¡claro!* ³⁶

Bestalde, honako egoeratan emakume izateak gehienetan kontutuan hartzen ez den jokamoldea dakar eta honekin sexu mailako degradazio mota bat ere berarekin batera (irainak, txantaiak...). M. A. Azketak gogoan du egun batez San Kristobal Fuertean atezainak emandako erantzuna emakume haiek nortzu ziren galderari (espetxeratuei laguntza taldekoak): *éstas son las putas de los de dentro que vienen a ver si les dejamos entrar, o sea que encima nos insultaban. No nos importaba nada.* ³⁷J. Kuntxillos eta beronen senarra altxamenduak Elizondon harrapatu zituen eta bai bera eta baita senarra beren etxean atxikiak izan ziren, atxilotu gisa. Bere senarra mobilizatua izan ondoren (beharturik) *tenía que ir todos los días a firmar ... pero, además, no firmaba nunca en ningún sitio ... Pero el comandante éste, ya te digo, sanguinario no era, pero, ¡le gustaban las mujeres!* Komandantziara jotzen zuen eta gehienetan gendea zegoenez, arratsaldera arte lan egiten zuten, *y yo me quedaba con él, entrábamos en el despacho y él echaba la llave ... y yo a poner cara de tonta ... siempre me recordaba que tenía a mi marido en sus manos, la única salida era poner cara de tonta en el aspecto que él me planteaba que si yo quería salvar a mi marido me tenía que acostar con él, en una palabra.* ³⁸

Bestalde, gogoan du nola berak hartu behar izan zituen etxean Zugarramurdin muga igarotzen saiatzen harrapatuak izaniko emakume bat bere hiru alabekin eta frankistek ez zituztenez non sartu, berari, atxilotu bati, eskatu zioten lau atxilotuen kargu egitea, honek agerian uzten duelarik zein egoera sinesgaitzak eman ziren.

Baina emakume abertzaleen jokaerari buruz badago beste alde azpimarragarri bat, hain zuzen ere, seme-alaben heziketari dagokiona. Sabino Aranaren sasoiak zabaldu eta defendaturiko euskal emakume ereduak, ama eta emaztearena, era berean hizkuntzaren, ohituren, balioen, erlijioaren eta euskal folkloreaken transmisioa zekarren. Zentzu honetan, frankismoaren garapenarekin ume eta gazteen bigarren sozializazioari begirako ekimenak bertan behera geratu behar izan ziren, behintzat ordura arte gauzatzen ziren espazio publiko eta komunitarioan, eta familiaren eremura mugatu behar izan zen. Ildo honetatik, gure elkarriketatuak, euretariko bi ama izan ez arren beren iloben heziketan partaidetza zuzena izan dute eta segitutako jokabidearen berri ematen digute.

Beren seme-alabek edo ilobek euskara ikas zezaten nahi zuten, hori lortzeko irakaskuntza pribatura jo zutelarik. M. D. Hermoso Mendozak bere iloba Julia Fernandez Zabaletaren

etxera bidali zuen eskolak hartzera, berau zelarik erregimenak «bartzeturiko» irakaslea. J. Kuntxillosek neskame euskalduna, beste zerbitzari guztiak bezalako alegia, hartzea erabaki zuen, bere lehenengo alabarentzat honela argudiatuz: *¿a dónde la mandabas? ... es que no podías mandarla a ningún sitio, era meterla en la boca del lobo, que estuviera oyendo que éramos unos asesinos. Saiatu zen bere alabak Euskal Herrian gertatzen zenaz jabetzea: que supieran todo lo que pasaba aquí. Bueno ... dentro de una medida, no volverla loca ... que fuera consciente de que si se nos perseguía no era porque éramos malos y esas cosas...* Emakume honek, 1944ean alargundu ondoren, Argentinara jo zuen, han baitzegoen bere familia osoa. Behin han, Buenos Airesen borrokatzen jarraitzen zuen –*seguía luchando por la cosa vasca*– Euzko Etxea bultzatuz eta bere alabekin hara joanez, non zenbait ekintza eratuak baitzeuden, hala nola euskara klaseak, folklorea eta abar. Jokamolde militante honi bere ondorengo belaunaldikoei ere jarraiki diote, hau da, bai bere alabak eta baita ilobek ere: *están empapadísimos de todo lo que ha pasado aquí ... pero ellas (hijas y nietas) están ahora luchando por aquello, trabajando por la causa de los mapuches.*³⁹

M. A. Azketaren kasua ezberdina da nahiz eta zenbait antzerakotasun eman. Bere biloba eskola municipalera joan arren, hasierako ikastola 1.964-65an sortu baitzen eta honek, jadanik, 7 edo 8 urte baitzituen, kontzientzia abertzalea garatu zuen. Beraren aburuz *la casa ejerce más influencia que la escuela ... dentro de casa la vida era normal como nacionalista ... le íbamos enseñando todo lo que había que saber.*⁴⁰

Laburbilduz esan genezake emakume abertzaleek Nafarroan EABn izan zutela partaide-tza politikorako gunea, zeinak familiaren barruan hizkuntzaren eta abertzaletasunaren berezko balioen zaindari izatearen zereginetik propaganda jarduerari lotutako esparru soziale-tan, ongintzakoetan eta kulturean aritzera bultzatzen dituen. Erregimen frankistaren ezarpenarekin birsorketa kulturala familiaren eremura berregokitu behar izan zen. Beste alde batetik Nafarroako nazionalismoaren emakumeak bereziki ekintzaileak izan zirela azpimarratu behar dugu eta gure entrebistatuen kasuan, hain zuzen ere, EABk eragindako ekimenak nahiz eta positibotzat jo, orduan ere zaharkituztat zituztela ikustarazten diguten zenbait aztarna somatzen dugu.

1. Hemen aztertuko dugun gaiarekiko hurbiltasunagatik ikus: COHEN, Yolanda «De lo femenino al feminismo: el nacionalismo de Quebec en femenino» in *Historia de las Mujeres*. Taurus.
2. LARRAÑAGA, P. (1978): *Emakume Abertzale Batza. La Mujer en el Nacionalismo Vasco*. Donostia. Añamendi, 3 ale eta ELORZA, A.(1978): «Emakume: La mujer en el nacionalismo vasco». *Tiempo de Historia*. 38 zb. 4-17 orri. Lan bi hauekin emakumea eta nazionalismoaren gaiak jakinmin haundia bereganatu zuten, gure hausnarketarako M. Ugalderen lana oso kontutan hartu dugularik. Ikus: UGALDE SOLANO, M. (1993): *Mujeres y Nacionalismo Vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza. 1906-1936*. Bilbo. UPV/EHU.
3. M. UGALDE (1993). aip. lanean, 198. orri.
4. Era honetako eskolen eskaria jadanik egina zuen Alberto Atxika Allende jeltzaleak Eusko Ikaskuntzako Lehen Kongresuan (Oñate, 1918) eta M. Ana Sanz-ek Iruñean, 1920an ospaturiko bigarrenean
5. J. Kuntxillosekiko elkarrizketa; Iruñea 1994/5/27. Julia Kuntxillos Blanco, 1910.ko Irailean jaioa, Santiago Kuntxillos-en alaba, EAJren sortzailea Iruñean eta Nafarroako Aldundiko Idazkari, oposaketaz, baina kargu honi uko egin zion 1918.ko Reintegrazio Foral Osoaren Aldeko Mogimenduak ezarritako kontentzioaren aurrean Madrilék emandako erantzunagatik; beronen ama Teresa Blanco, Iruñeako EABren lehendakariorde. Tuteran jaotako José Abascalekin ezkondua, Eusko Abertzale Ekintzako kidea, bere garaiko gertaerekin bat bizi izan zelarik. Bere ekintza eta familiarenaren bidez bere lekukotza Nafarroako Emakume Abertzaleen esperientziaren jakingarri dugu.
6. J. Kuntxillosekiko aipatu elkarrizketa. Julia Kuntxillosek Bilboko jeltzaleek zuten ezagupen eza eta gidari jokabidearen adibide gisa ondorengo gertaera dakarkigu gogora: Bigarren Errepublikan Manuel de Irujo hautagai aurkezten zen Tuterako merindadetik, «como mi marido era de Tudela, él fue a Tudela a hacer la presentación. M. de Irujo les habló en una forma que sabía cómo había que tratarlos a los riberos, hablándoles de los Fueros de Navarra y haciendo hincapié en eso. Había que hacer una labor con cabeza, sabiendo en qué terreno estabas pisando. Bueno estuvo M. de Irujo y se llevó a la gente, salieron como locos. A los pocos días llegaron los muchachitos bilbainos a Tudela, les hablaron de la Ribera por JEL (Jaungoikua eta Lege Zaharra) y ahí les fastidiaron».
7. M. Angeles Azketarekiko elkarrizketa; Iruñean 1994/5/26. M^a Angeles Azketa Ezkieta, Iruñean sortua 1911.ko apirillean, Iruñeako Irakasle Eskola Normalean ikasi zuen inoiz ere hortan aritu ez arren, Iruñeako EABren kide dugu zuzenki jarduz, mitinen baten hizlari izandakoa eta gerra ta gerraondoko garaian San Kristobaleko Fuertean espetxeratutakoak laguntzen zituen EABren emakumeetarikoa.
8. M. Angeles Azketarekiko elkarrizketa; Iruñean 1994/5/26.
9. M. Dolores Hermoso Mendoza 1913an Dikastillon jaioa, 1920an bere familiarekin batera Lizarrara joan zen bizitzera bertan EABko kide izanik; bere zereginen artean aipagarriena nazionalismoaren propagandista izatea izan zen.
10. J. Kuntxillosekiko aipatu elkarrizketa.
11. *Idem*.
12. M. Angeles Azketarekiko aipatu elkarrizketa.
13. M. Angeles Azketarendako Irakasle Eskola izan zen ideia abertzaleekin topo egiteko tokia bere ikaskideekin zituen harremanen bidez, adibidez Damiana Añorga (gipuzkoar abertzalea) eta Jesusa Aranzadi (Estanislao Aranzadi diputatuaren alaba). M. Dolores Hermoso Mendozari EABkoa izatea, bere neba Juan Anjelen eraginez zetorkion, honek Apaizgaitegian joera euskaltzalea zuen apaiz talde batekin topo egin baitzuen. J. Kuntxillos eta Teresa Epalza Aranzadi abertzale familien partaide izatearen adierazgarri ditugu eta beraien amek EABn karguak izan zituzten.
14. Josefina Irujoren bizitzari buruz ikus: TXUEKA, J. (1993): «Josefina Irujo. Emakume baten ibilbide eta textuinguru historikoa», *Ikerkuntza, Irakaskuntza eta Feminismoa Nazioarteko Kongresua*. Donostia.
15. Elkarteen osaketa, ondoren azaltzen denez, jakin izan dugu. 1931.koa Iruñeako EAB-ren Araudian ematen da aditzera. Nafar Gobernuaren Delegaritzako Artxibategiko A-XXIV karpetan dagoelarik. 1933.koa La Voz de Navarra, 1933.ko Abenduaren 23an; egunkari berean 1935.ko Abenduaren 31ean datorkigu 1935.koari dago-kiona. Billabakoaren osaketa 1934.ko Urtarrilak 7ko La Voz de Navarra aurki daiteke «La fiesta de los reyes en el Batzoki de Billaba» izenburupean.
16. Orientabide hau sasoi hartako gaiari dagokionean euzkotar argitarapenetan ageritako idazki ugarietan antzematen da (Aberri, Euzkerea...) era berean orientabide berbera aurki dezakegu La Voz de Navarra eta azpimarragarria ditugu emakumeek idatzirikoa artikulua ugariak (Utarsus, Tene, Mate, Arritokieta...) nahiz eta nafarren kasuan urriagoak izan. Bereziki interesgarria iruditzen zaigu, liburu gisa argitaratu baitzen, ondoko hau: TENE (1923): *Miren Itziarri idazkiak eta olerkiak*, Jaiungoiko-Zalearen Irarkola. Zornotza.
17. «El mitin de Marcilla. Discurso de la Srta. Catalina de Alastuey». *La Voz de Navarra*, 1933.ko Urriak 6.
18. M. Angeles Azketarekiko aipatu elkarrizketa.
19. BIPIM: «La emakume baztanesa». *La Voz de Navarra*, 1934.ko Urtarrilak 19.
20. Hizlarien zerrenda hala nola esku hartu zuten ekitaldiena La Voz de Navarra-ren aleetan behatu daitezke ondorengo datetan: 1932.ko Apirilak 8, 10, 16; 1933.ko Otsailak 10; 1933.ko Maiatzak 5; 1933.ko Ekainak 28; 1933.ko Azaroak 18.
21. J. Kuntxillosekiko aipatu elkarrizketa.

22. EMAKUME BAT: «¡Mujer cristiana! ¡Mujer navarra! ¡Mujer vasca!» *La Voz de Navarra*, 1933.eko Azaroak 16.
23. Ekintza hauen berri La Voz de Navarratik harturiko aipamenetan aurki daitezke: «Fiesta Pro Solidaridad de Obreros Vascos» organizada por EAB, 1933.ko Urtarrilak 16; «La fiesta organizada por EAB de Iruñea en pro de Solidaridad Obreros Vascos resultó hermosa y sugestiva» 1933.ko Urtarrilak 7; «Emakume Abertzale Batza» 1933.ko Uztailak 29; L. AVICENA URIZ: «El renacimiento vasco en Iruñea», 1933.ko Abenduak 30; «En Euzko Etxea, se celebró con gran asistencia de público el hermoso acto de reparto de canastillas confeccionadas por las Emakumes», 1934.ko Urtarrilak 17; Julio INTXAURRAGA, «S.T.V. El gabon de los solidarios», 1935.ko Abenduak 19; J.M.de A. «Las emakumes de Iruña por los solidarios vascos» 1936.ko Urtarrilak 21.
24. J. Kuntxillosekiko aipatu elkarrizketa.
25. Elkarte honetaz eta beronen ekintzetaz, G. SOLE ROMEO: «Mujeres carlistas en la república y en la guerra (1931-39), algunas notas para la historia de las Margaritas de Navarra», *Príncipe de Viana*, 15 zb. (1993) 581-591 orr.
26. «Jostari» antzezaldeak Gayarre antzokian 1933.ko Abuztuaren 19an Arturo Kanpionen «Pedro-Mari» antzezlanaren eman zuten lehendabizikoz, antzezle nagusia Estanis Aranzadi zelarik, EABren kide batzuk ere partaide zirelarik, beste batzuen artean Mirentxu Esparza ta Kontxita Blanco. Gerora, 1934.ko Urtarrilak 3an «Enmanuel» antzeztu zuten. Antzeztlan hauek herriz herri ibili ziren baita Gipuzkoako zenbait tokitatik. Honez gain hurrendako jaiak ere antolatzen zituzten Jai Alain. *La Voz de Navarra* 1933.ko Abuztuak 2,19,20; 1933.ko Urriak 26; 1933.ko Abenduak 9,12,24; 1934.ko Urtarrilak 4.
27. «Euzko-Gaztetxu-Batza en Pamplona». *La Voz de Navarra*, 1933.ko Abenduak 1. Talde eratzailleko partaideen artean Beatriz Urmeneta eta Eulalia Pérez Subiza zeudelarik. «Iruña'ko Euzko Gaztetxua. Actividad de esta benemérita institución pro-niños vascos». *La Voz de Navarra*, 1935.ko Abenduak 7.
28. M. Angeles Azketarekiko aipatu elkarrizketa.
29. Gai honetaz ikus: FERNANDEZ,I. (1993): *Ikastolen mugimenduaren historia. 1960-1975*. Tesi doktora. UPV/EHU.
30. Lizarraren kasuan harrigarria dugu La Voz de Navarra-ko argazki bat non Euskal Eskolako haurrek Urbasako San Miguel Excelsis Koloniarri egindako ikustaldi baten berri ematen baitzen, 26 neska-mutil agertzen direlarik, hau lorturiko itxurazko arrakastaren adierazgarri dateke-elarik. Euskal Eskolari buruz, La Voz de Navarra: «La Escuela Vasca de Párulos de Pamplona. Los exámenes de fin de curso» 1932.ko Uztailak 1ean datatua; GURBINDO: «En la Escuela Vasca. Exámenes y presentación de trabajos» 1933.ko Uztailak 1; «La Primera comunión de la Escuela Vasca»,1933.ko Apirilak 30 eta Maiatzak 2; G.: «La formación cultural de nuestro pueblo. Escuelas Vascas en Navarra», 1933.ko Azaroak 17; «Primera Comunión en las Escuelas Vascas»,1934.ko Maiatzak 4.
31. Euskal Gobernuako espioitza sareari dagokionean, Baztan bailaran izan zuen kokagunea eta burua Bittori Etxeberria .Emakumeen partaide izanikoa. Ikus: TXUEKA INTXUSTA, J. (1991) «Mujeres antifranquistas en la retaguardia nacional. El caso de Navarra» in *VVAA: Las mujeres y la Guerra Civil Española*. Madrid, Kultur Ministeritza.
32. Testigantza hauek M. Angeles Azketarekin izandako elkarrizketakoak dira.
33. M^a A. Azketak kasu baten berri ematen digu zeinean fuertearen atean astotxu batekin Segoviatik zetorren emakume bat negarrez aurkitu baitzuen ez zuelako bere senarra ikusteko baimenik, bakunazio ziurtagiririk ez zuelakoaren aitzakiapean. Gure entrebistatuak, Bilbotik egotzitako sendagilea zen Atutxa jaunak luzatutakoa eskuratu zion.
34. Gerra Zibilaren ondorengo garaia eta EABk buruturikoari buruz ikus P. Larra-agaren lehenago aipaturiko lanaren III. alea.
35. Teresa Epalzarekiko elkarrizketa. Iruñea, 1994/5/27. Teresa Epalza Aranzadiren testigantza dugu, 1918an Bilbon jaioa eta Maria Epalza Irujoren alaba. Gazterik ezagutu zuen bere familiaren erbesteratzea Jatzu-ra (Iparraldea) non EABren idazkari lana burutzen baitzuen eta, geroago, hainbat zereginetan esku hartutakoa: dotrina erakusten, baliabide bilaketan, koloniak laguntzen eta abar. 1972an Iruñeara itzuli zen bertan San Fermin ikastolako irakaslea izanik.
36. J. Kuntxillosekiko aipatu elkarrizketa.
37. M. A. Azketarekiko elkarrizketa.
38. J. Kuntxillosekiko aipatu elkarrizketa.
39. J. Kuntxillosekiko aipatu elkarrizketaren pasarteak dira hauek.
40. M. Angelez Azketarekiko elkarrizketa.

LABURPENA

Lan hau ikerketa zabalago baten aurrerapena da, eta, bertan egileak saiatu gara datuak biltzen Emakume Abertzale Batzan sartutako nafar emakumezkoen eitekoari buruz pentsamodi abertzalearen transmisioan eta mantenimenduan. Horretarako, ahozko historiari heldu diogu, eta EABko zenbait bazkideren lekukotasun biziak hartu ditugu elkarrizketa sakonen bidez. Ikusi dugu badela arras erroturik agertzen den euskal kontzientzia eta sentimendua, nafar nortasunari eta bere historiari lotua. Historia horretan abertzaletasuna faktore aurrerazalea da, bai karlismoaren aurrean, bai beste proposamen zentralista batzuen aurrean. Halaber, bada saiakera bat nafar eta bizkaitar abertzaletasunaren arteko ezberdintasunak nabarmentzeko, eta, alde horretatik, nafar abertzaletasuna lotua agertzen da antizentralismoarekin eta gizarte-proposamen irekiagoekin. Era beran, emakumeen aferaz jarrera igualitariagoak dituzte eta sentibilizazio handiagoa euskal kulturarekin eta hizkuntzarekin. Azkenik, frankismoaren eta herbesteratzeraren hasierarekin batera, familiak bere gain hartzen du zeregin garrantzizkoena lehen mailako sozializazioaren prozesuan eta, halaber, egitekorik inportanteena darama bigarren mailako sozializazioari aurre egiteko.

RESUMEN

Esta trabajo es un avance de una investigación más amplia en el que se pretende recabar datos sobre el papel de la mujer navarra, integrada en la Asociación de Mujeres Patriotas (EAB), en la transmisión y mantenimiento de los discursos nacionalistas y de género. Para ello, desde el enfoque de la historia oral, hemos recuperado algunos testimonios vivos de militantes del EAB, a través de entrevistas en profundidad. Observamos la presencia de un sentimiento y una conciencia euskaldun muy arraigada y asociada a la personalidad navarra y a su historia, historia en la que el nacionalismo aparece como un factor progresista frente al carlismo u otras propuestas centralistas. Asimismo, aparece un intento de marcar diferencias entre el nacionalismo navarro y bizkaino, asociando el nacionalismo navarro al antizentralismo, a propuestas sociales más abiertas, a un discurso de género más igualitario y, por fin, a una mayor sensibilización con la lengua y la cultura vasca. Por último, tras la implantación del franquismo o el exilio la familia pasa a ocupar un papel predominante en el proceso de socialización primaria y de resistencia a la socialización secundaria existe.

ABSTRACT

This work is an advance of a larger research in which we attempt to collect data on the role of the Navarrese woman integrated in the Association of Patriot Women (EAB), in the transmission and maintenance of nationalist and gender discourses. In order to achieve this and from the approach of oral history, we have recovered some live testimonies of militants of EAB through in-depth interviews. We have noticed the presence of a very ingrained Basque feeling and awareness, associated to the Navarrese personality and to its history, a history in which nationalism appears as a progressive factor if faced to Carlism or other centralist proposals. We also notice an attempt to set differences between Navarrese and Biscayan nationalism by associating Navarrese nationalism to antizentralism, to more open social proposals, to a more egalitarian gender discourse and, finally, a deeper awareness towards the Basque language and culture. After the implantation of Franco's regime or after exile, the family goes on to take up a predominant role in the process of primary socialization and in resisting the existing secondary socialization.